



Javier Gutiérrez, *Rondallas* filmeko protagonistetako bat.

Musika izango da Belodromoko programazioaren ildo nagusia

SERGIO BASURKO

Belodromoko programazioak *Go!azen* telesailaren hamabigarren denboraldiko lehen atalaren bi emanaldi hartuko ditu barne, *Rondallas* –Daniel Sánchez Arévaloren film berria– eta *Hasta que me quede sin voz* –Leiva musikariari buruzko ez-fikzioa– estreinatzeaz gainera. Halaber, areto itzel honetan itxiera galaren eman-kizuna ere eskainiko da, EITB gala, Kontzertua & Proiektzioa eta Ikastetxeak Belodromoan ekimenaren goizeko emanaldiez gain.

Asteartean, hilaren 23an, 19:00etan estreinatuko da *Rondallas*, Daniel Sánchez Arévaloren itzu-

lera zinemara. Javier Gutiérrez, María Vázquez, Judith Fernández, Tamar Novas eta Fer Fraga dira komedia dramatiko honen protagonistak; filmak kontatzen digu nola Galiziako udalerrri batek erabakiko duen herriko musika-talde tradizionala (errondaila) berreskuratzea; garai gogorretan komunitateak duen garrantziari eskainitako oda bat.

Ostegunean, hilaren 25ean, 19:00etan, *Hasta que me quede sin voz* filma emango da pantaila erraldoian. Bertan, Leiva musikariaren bizi-unea, zurrunbiloa eta bere ahots-kordetako batean duen lesio osaezin baten ondorioz bizi duen egoera labaina azaltzen dira. Hiru

egileren lan kolektiboa da filma: lehenik, proiektu ugari ekoitzi dituen Mario Forniés dugu, besteak beste, kantautore madrildarraren bideoklipak; bigarrenik, Lucas Nolla, hainbat filmetan muntatzaile-lanak egin dituen; eta, hirugarrenik, Sepia, argazkilaria eta musika-bideoen zuzendaria.

Gainera, lehen aldiz, *Go!azen* telesailaren bi emanaldi egongo dira bertan: bata, asteazkenean, hilaren 24an; bestea, ostiralean, hilaren 26an; bi saioak 18:30ean. *Go!azen* telesailaren hamabigarren denboraldiko lehen atala aurkeztuko da, eta, iaz bezala, emanaldiaren aurretik zuzeneko funtzio bat egingo dute protagonistek. Itziar Gomez Sarasolak zuzendu du Basakabi udalekuko musika-abenturen denboraldi berri hau. Azkenik, hiriko aretorik handienez egingo da lehendabizikoz EITB gala, eta *Euskal Herria Hegan* programaren lehen atal *Gipuzkoa hegan* estreinatuko da ekitaldian.

Ohi denez, Zinemaldiaren azken egunean Belodromoak itxiera galaren zuzeneko emanaldia hartuko du. Halaber, Sail Ofizialari amaiera emango dion filma eta laster iragarriko den beste pelikula bat ere proiektatuko dira.

Basoko misterioetan barrena Miyazakiren eskutik



Totoro auzokidea animazioko maisu-lanaren fotograma bat.

S.B.


Milaka haurrek Hayao Miyazaki japoniar maisuaren *Totoro auzokidea* filmaren emanaldiaz gozatze-ko aukera izango dute, Ikastetxeak Belodromoan ekimenaren barnean. Zinemaldiak, Donostia International Physics Centerrek (DIPC) eta Euskadiko Filategiak elkarrekin antolatutako saio jendetsuak basoko misterioetan barneratuko dira aurtan, bertako biztanleek osatzen duten ekosistema liluragarria eza-gutarazteko ikasle gazteei, naturan oreka ekologikoa eta biodibertsitatea babestea zein garrantzitsua den azpimarratuz.

Totoro auzokidea pelikula lan-da-etxe batera joan eta izaki magikoak aurkituko dituzten bi neskaren arteko harremana kontatzen digu. Filma euskarara bikoiztuta emango da, eta euskarazko azpitituluak izango ditu gorrentzat eta entzuteko zailtasunak dituzten pertsonentzat. Izan ere, 2023an bere ibilbide osoagatik Donostia Saria jaso zuen Hayao Miyazaki filmeko zuzendaria,

animaziozko zinemaren munduko maisu nagusietako bat da.

Totoro auzokidea filmaren emanaldiarekin batera aurkezpen original bat egingo da, hainbat ezusteko ere izango dituen. Basoaren bihotzera bidaiatuko dugu zuhaitzak, onddoak eta organismo ñimi-ñoak elkarrekin nola bizi diren eta elkarri nola laguntzen dioten deskubritzeko. Mikromundu sinbiotiko horien eta lurpeko komunikazio-sareen aurkikuntzak basoa ia batere esploratu gabeko ekosistema gisa hautematera eramango gaitu.

Aurtengo ediziora gonbidatutako zientzialaria Neiker Nekazaritza Ikerketa eta Garapenerako Euskal Erakundeko Baso Zientzien departamentuko Nahia Gartzia Bengoe-txea biologo ondarrutarra izango da. Eguneroko lanean, baso-lurzoruak eta horiek giza jarduekin eta ingurunearekin duten lotura analizatzeko, jasagarritasunerako eta klima-aldaketarekiko erresilientziarako baso-praktika berriak sortzea izanik azken xedea. Biologian lizentziaduna eta Zientzietan doktorea EHU.



LA ÚNICA ENTIDAD DE GESTIÓN ESPECIALIZADA
EN AUTORES AUDIOVISUALES.

AHORA ES EL MOMENTO. ÚNETE. WWW.DAMAAUTOR.ES